



OSTATUA

Parte-hartzaileen erosotasunerako, bilkurarako hainbat ostatu-aukera eskaintzen dira, kokapen eta erreserba-baldintza desberdinak eskainiz. Bilkruaren kudeaketa logistikoa Durangon zentralizatuko da, bertan biltzen baita inguruko hotel-eskaintzaren zatirik handiena. Aldez aurretik erreserba egitea gomendatzen da.

Bilkurarako ostatu aukerak

1. **Gran Hotel Silken Durango** (Eskuragarritasun handiena – ez dago logelarik blokeatuta)

Gran Hotel Silken Durango bilkurako parte-hartzaileentzako ostatu-aukeretako bat da. Hotelaren webgune ofizialean zuzenean erreserbatuz gero, **%10eko deskontua aplikatuko da kode** baten bidez.

Erreserba baldintzak:

- **Deskontu-kodea:** 2026FACE
- **Deskontua:** %10eko beherapena, tarifa publikoaren gainean
- **Erreserba-kanala:**
 - Hotelaren webgune ofizialaren bidez soilik: www.hoteles-silken.com
 - Kodea ezin da erabili ez posta elektronikoz ezta harreran bertan ere
- Deskontu-kodea 2026ko ekainaren 1etik irailaren 20ra arte egongo da indarrean. Kontuan izan ez dagoela bilkurarako aurrez blokeatutako gelarik; erreserba guztiak unean uneko eskuragarritasunaren arabera egingo dira.

***Hotel hau bilkurako autobusen abiapuntu nagusia ere izango da, jarduera eta bisita guztietara joateko.**

2. **Hotel O Camiño** (Eskuragarritasun ertain-altua – logelak blokeatuta)

Hotel O Camiñon gela kopuru mugatu bat blokeatu da bilkurako parte-hartzaileentzat, ekitaldirako bereziki finkatutako tarifekin.

Xehetasunak: (Prezio guztiak BEZ barne)

- Banakako logela: **60€**
- Logela bikoitza (ohe bat edo bi): **75€**
- Logela hirukoitza: **110€**
- Logela jacuzzi-arekin: **120€**
- Logela familiarra (konektatutako bi logela bikoitz): **160€**
- Gosaria eskuragarri 6:00etatik aurrera



Erreserba-prozedura:

Hotel honetako erreserbak bilkuraren antolakuntzak kudeatuko ditu. Hotel O Camiñon ostatu hartu nahi duten parte-hartzaileek **lbravo@leartiker.com** helbidera idatzi beharko dute, hark hotelarekin erreserba koordinatzeko.

- **Ordainketa:** Zuzenean hotelean
- **Logela blokeatuak: 2026ko abuztuaren 31ra arte;** data horren ondoren esleitu gabeko gelak askatu egingo dira
- Gelak eskaeren hurrenkeraren arabera esleituko dira

3. Hotel Olajauregi (*Eskuragarritasun mugatua – logelak blokeatuta*)

Hotel Olajauregin ere gela kopuru mugatu bat erreserbatu da bilkurako parte-hartzaileentzat, ekitaldirako tarifa finkoarekin.

Xehetasunak: (*Prezio guztiak BEZa barne*)

- Banakako logela: 70€ gau bakoitzeko
- Gosaria (aukerakoa): 12€
- Aparkalekua (aukerakoa): 8€ eguneko

Erreserba prozedura:

Erreserbak bilkuraren antolakuntzaren bidez kudeatuko dira. Hotel Olajauregin ostatu hartu nahi dutenek **lbravo@leartiker.com** helbidera jo beharko dute, hark hotelarekin erreserba izapidetzeko.

- **Ordainketa:** zuzenean hotelean
- **Gela blokeatuak: irailaren lehen astera** arte; ondoren, esleitu gabeko gelak askatu egingo dira
- Gelak eskaeren hurrenkeraren arabera esleituko dira

4. Ostal Juego de Bolos (*Eskuragarritasun oso mugatua*)

Ostal Juego de Bolosen gela kopuru oso mugatua erreserbatu da bilkurako parte-hartzaileentzat, tarifa finkoekin.

Xehetasunak:

- Banakako logela: 47,50€ gau bakoitzeko
- Logela bikoitza: 63€ gau bakoitzeko



Erreserba prozedura:

Eskuragarritasuna oso mugatua denez, erreserbak bilkuraren antolakuntzak soilik kudeatuko ditu. Aukera honetan interesa duten parte-hartzaileek **lbravo@leartiker.com** helbidera idatzi beharko dute, eskuragarritasuna kontsultatu eta erreserba koordinatzeko.

- **Ordainketa:** zuzenean ostatuan
- Gelak eskaeren hurrenkeraren arabera esleituko dira

Beste aukera batzuk

Parte-hartzaileek Markina-Xemein inguruan eta hurbileko eremuetan beste ostatu-aukerak ere azter ditzakete. Aukerak hurrengo dokumentuan jaso dira. (PDF webgunean eskuragarri).